

BATZAR OROKORRA

Eguna: 2018-06-13

Ordua: lehenengo deialdia 17:45 eta bigarren deialdia 18:15

Bertaratutako batzar kideak: Asier Urretavizcaya, Ana Larraza, Jenniffer Ubeda, Pilar Comin, Amaia Caravaca, Amaia Checa eta Loreto Velilla.

Bertaratutako bazkide kopurua: 28

Amaia, zelandiko zuzendaria ere egon da.

1.- 2017/2018 ikasturtean zehar burututako ekintzak azaltzen dira:

2017/11/17 -Jantokiko festa
2017/12/18 -Olentzero eskolan
2017/12/20 -Errege pajeak eskolan
2017/12/24 -Olentzero Altsasun
2018/01/05 -Kabalgata Altsasun
2018/04/21 -Etxarriko Sortzen festan tailerra
2018/06/02 -Zaragozara irteera
2018/06/08 -6.mailakoei agur afaria
2018/06/16 -Ikasturte amaierako festa

Ikasturtean zehar burututako batzar guztiak ere azaltzen dira:

2017/10/17 -G.E.ko batzar nagusia
2017/11/06 -Departamentuarekin bilera Iruñan
2017/11/23 -Ikas kontseilua
2017/12/14 -Jantokiko bilera
2018/01/25 -Ate irekien jardunaldia Zelandin
2018/02/07 -Altsasuko alkatearekin bilera
2018/02/20 -Ez-ohiko batzarra
2018/03/26 -Ikas kontseilua
2018/05/16 -Altsasuko alkatearekin bilera
2018/05/23 -Ikas kontseilua
2018/06/13 -Batzar orokorra

G.E.ko 9 batzar bilera

Lakuntzan Sortzenekin 7 bilera

2.- Ikasturteko kontuak azaltzen dira. Alde batetik G.E.koak eta bestetik jantokikoak. Horretaz gain bazkide bakoitzak ordaintzen dituen 25€-ak zertan gastatzen diren zehazki azaltzen da: %84 ikasturte amaierako festan gastatzen da eta gainontzeko ekintzak loteria, zozketak edota dirulaguntzetatik jasotako diruarekin burutzen dira.

Hurrengo ikasturtean eskolako agendak beste enpresa batekin egingo dira eta askoz ere merkeagoak izango direnez, ez dira orain arte itzultzen ziren 2€ak emango.

Bazkide batek aurtengo ume kopuru murrizta ikusita, hurrengo ikasturtean jangelako jarraipenaren inguruan zalantzak azaldu ditu. Honen erantzunean azaldu zaio Zelandin transportatu gutxi daudenez jantokia G.E.ren esku dagoela eta erabiltzaile minimo batera ez iritsi arren, irtenbideren bat bilatuko zela jantokiko zerbitzua behar beharrezkoa duten familientzat.

3.- Aurtengo G.E.ko batzar kideak aurkezten dira eta bi izan ezik denak berriak izatearen ondorioz ekintzak aurrera eramateko hasiera bateko zailtasunak suertatu direla aipatzen da. Horregatik hurrengo ikasturteetan holakorik ez gertatzeko batzar kide berriak denak batera ez sartzeko modua bilatzea gomendatzen da.

Gaur egungo batzar kideak:

Lehendakaria: Asier Urretavizcaya (2017)
Idazkaria: Loreto Velilla (2018)
Diruzaina: Ana Larraza (2016)
Ekintzak: Esther Martinez (2016)
Ekintzak: Amaia Checa (2017)
Eskolaz kanpokoak: Pilar Comin (2017)
Eskolaz kanpokoak: Amaia Caravaca (2017)
Jantokia: Jenniffer Ubeda (2017)
Jantokia: Beatriz Galan (2017)

Aurten Ana Larraza eta Esther Martinez batzar kideak izateari uzten diote eta hurrengo ikasturtean Erkuden Plaza (diruzaina), Izaskun Carrasco (jantokia) eta Aaron Ramos (ekintzak) batzar kide berriak izango dira.

Berataratutako bazkideen artean ez dago inolako arazorik eta hauei hurrengo ikasturteetan batzar kide izateko edota burutzen diren ekintza ezberdinetan bolondresak izateko eskaintza egiten zaie.

4.- 2018-2019 ikasturterako G.E.an lanean ari garenaren berri ematen da:

- G.E.legalizatzeko eta ondorioz diru laguntza gehiago izateko aukerak handitzeko, honen azken urteetako batzar kideen erregistroa eguneratzen ari da.

- Jantokiko araudiaren eguneratzea.

- Jantokiko zerbitzuan hobekuntzak-Ausolan (Jangarria). Ikasturte osoko hilabete guztietan eta astegun guztietan jantokia egoteko negoziatzen ari da bai eta egunero jantoki orduan burutzen diren ekintzak hobetzeko, ume bakoitzaren otorduen jarraipena egiteko, begiraleentzat formakuntza eta Ausolan -Jangarria enpresaren esku joan daitekeen hirugarren begirale bat izateko aukera.

- G.E.ko egoitzaren erreabilitazioa, bilerak, hitzaldiak, umeentzako zein gurasoentzako tailerrak...eta hurrengo ikasturtean posiblea izanez gero familiei goizeko harrera (8etatik aurrera) eskaintzeko aukera.

- G.E.ko web orriaren aurkezpena. Elkartea familia guztien eskura egoteko eta denok parte hartzeko, bai Zelandi eskolan eta baita elkartearen ere burutzen diren ekintza zein

informazio guztiaren berri izateko aukera ematen duen web orri berria sortzea da helburu eta horretan gabilta buru belarri.

www.apymazelandige.com

Bazkide batek web orriko informazio berrien abisua jasotzeko RSS jartzeko aukerarik ote dagoen galdetu du eta iradokizun hori web orria eraikitzen ari duen pertsonari helarazi zaio.

6.- Horrengo ikasturterako elkarteak proposatzen dituen proiektuak aurketzen dira:

- G.E.ko egoitzan ekintzak zein goizeko harrera burutzeko gela aproposa izatea.
- Bilera gela egokitzea, bilerak, hitzaldiak, guraso tailerrak etbr. Burutzeko.
- Eskolako patioa hobetzea; mini frontoiak, porlanezko ping-pong mahaiak edota futbolinak jartzeko ideiak erakusten dira. Honakoak G.E.ko kideen diruarekin ordainduak ez liratekela izango zehazten da. Elkarteak proiektuak aurrera eramango lituzke diru laguntzak jasotzeko edota Udaletxeak lan hauek eginez gero, honakoak azkartzeko baizik.
- Jantokian hobekuntzak: bazkal osteko jarduerak burutzen diren lekuak hobetu eta lokuluxka egiteko aukera ematen duen gelatxoia ipini.

Batzarrean bertan, elkarteko postontziaren bitartez edota posta elektronikoaren bitartez iradokizunak egiteko gonbidapena luzatzen da. (zelandi.apyma@gmail.com)

7.- Eskolatik jardunaldi jarraia balorazteko bidalitako inkesta ez dela familia guztiei iritsi aipatzen da. Soilik familien €30ak bete du inkesta. Amaiak, Zelandiko zuzendaria, arazo informatiko batengatik izan dela azaltzen du eta berriro inkesta berbidaltzearen beharra ondorioztatzen da. Elkartetik familiei whatsapp bidez inkesta berbidali dela abisatuko zaie ahalik eta familia gehien bete dezaten.

Bestelakorik gabe batzarra arratsaldeko 19:30tan amaitzen da.

Lehendakaria

Idazkaria